



ANTOLATZAILEAK




Aretxabaletako  
Udala  
KULTURA SAILA



[www.aretxabaleta.eus](http://www.aretxabaleta.eus)  
[www.idazten.com](http://www.idazten.com)

# VIII. KARMELE IGARTUA SORKUNTZA BEKA

## POESIA 2018



# VIII. KARMELE IGARTUA SORKUNTZA BEKA: POESIA - OINARRIAK -

## 1. PARTE HARTZAILEAK

16 urtetik gorako edozein pertsonak har dezake parte lehiaketan.

## 2. LANAK

Poesiak euskaraz idatzita egongo dira.

Lanak originala izan behar du, argitaratu gabea eta euskaraz idatzia; ez da onartuko itzulpenik.

Lanak ez du 500 lerro baino gutxiagoko luzera izango, eta aurpegi bakarrean idatzita egongo da, New Courier 12 hizkian.

## 3. GAIA

Gaia librea izango da.

## 4. AURKEZPENA

Lanak posta arruntez edo posta elektronikoz bidal daitezke:

✉ Posta arruntez helbide honetara bidaliko dira: Otalora kalea 1, 20550 Aretxabaleta  
Udaletxean bertan ere aurkez daitezke, jendaurreko ordutegian.

Lanak hirukoiztuta aurkeztuko dira, gutunazal baten barruan. Gutunazalaren kanpoko aldean hau adieraziko da: "Kultura: VIII Karmele Igartua Sorkuntza beka:Poesia " (eta helbidea). Original bakoitzak izenburua izango du orrialde guztietan.

Gutunazal handiaren barruan derrigorrezkoa da beste gutunazal itxi bat sartzea (plika). Gutunazal horren kanpoan lanaren izenburua bakarrik jarriko da eta barruan datu hauek:

- Egilearen curriculum laburra eta, horren goiko aldean, izen-deiturak, helbidea eta telefonoa.
- NANaren edo pasaportearen fotokopia.
- Aitorpen idatzia, non adieraziko baita aurkeztutako lana jatorrizkoa eta argitaratu gabea dela, eta ez duela inongo lehiaketatan saririk jaso.
- Halaber, egileak berariaz aitortuko du deialdiaren oinarriak ezagutu eta onartzen dituela.

✉ Posta elektronikoz, [kultura@aretxabaleta.eus](mailto:kultura@aretxabaleta.eus) helbidera bidaliko dira. Lanak izenburua jarrita izan beharko du eta PDF formatuan bidaliko da; gainera, beste artxibo batean, posta arrunterako eskatutako datu berberak bidali beharko dira.

Antolatzaileek lanak soilik bidaliko dizkiete epaileei, egileen anonimotasuna mantentzeko.

## 5. LANAK AURKEZTEKO EPEA

Lanak bidaltzeko azken eguna: 2018ko urriaren 30a

## 6. HAUTAKETA-PROZESUA

Epaimahaia Bergarako Idazle Eskolak izendatuko du, eta erakunde horretako kideekin eta literatura munduko pertsonen artean aukeraturiko kideekin osatuko da. Jasotako lan guztiak aztertu ondoren, epaimahai horrek aukeraketa egingo du. Deliberoa 2018ko abenduaren 13a baino lehen hartuko da.

## 7. SARIAK

Irabazleak 2500 euroko diru saria jasoko du. Kopuru horretatik aplikagarriak diren zerga-arauak betez atxiki beharrekoa deskontatuko da. Saria eman gabe gera daiteke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

## 8. JABETZA

Lan irabazlea Aretxabaletako Udalarren eta Bergarako Idazle Eskolaren jabetzan geratuko da urtebetez. Erakunde horiek lehen urtean bakarrik erabili ahal izango dituzte egile-eskubideak beren proiekturen baterako.

## 9. OHARRAK

Lehiaketa honetan parte-hartzeak arau hauek eta epaimahaiaren erabakia erabat onartzea dakar berarekin.